



PARLAMENTO DE NAVARRA
NAFARROAKO PARLAMENTUA

Nafarroako Parlamentuari buruzko gida



Gidaren aurkibidea

1. Sarrera

Sarrera 3garren eta 4garren orrialdeetan dago

2. Nafarroako Gorteen edo Parlamentuaren historia

Gorteen historia 5garren eta 6garren orrialdeetan dago

3. Nafarroako erakundeak eta haien eginkizunak

Nafarroako erakundeak eta haien eginkizunak 7garren, 8garren eta 9garren orrialdeetan daude

4. Parlamentuaren funtzionatzeko modua

Atal hau 10garren, 11garren, 12garren, 13garren eta 14garren orrialdeetan dago

5. Lege bat nola onesten den

Atal hau 15garren orrialdean dago

6. Nafarroako Parlamentuaren eraikinaren historia

Atal hau 16garren eta 17garren orrialdeetan dago

7. Parlamentuaren eraikinaren antolamendua

Atal hau 18garren eta 19garren orrialdeetan dago

8. Parlamentuak eskaintzen dituen

zerbitzuak eta informazioa

Atal hau 20garren eta 21garren orrialdeetan dago

9. Zalantzaren bat duzu?

Jarri harremanetan Nafarroako Parlamentuarekin.

Atal hau 22garren orrialdean dago

Dokumentu hau “irakurketa erraza” formatuan idatzita dago.
Horrek esan nahi du modu errazean idatzita dagoela
denok ulertu ahal izateko moduan.
Hau da irakurketa errazaren logoa.



1. Sarrera

Gida honetan Nafarroako Parlamentuari
buruzko informazioa aurkituko duzu.

Nafarroako Parlamentuari “Nafarroako Gorteak”
ere deitzen zaio.

Parlamentua da gure erkidegoak dituen
hiru **erakundeetako*** bat.

Aurrerago 3garren puntuan azaltzen da
zeintzuk diren Nafarroako 3 erakundeak.

Parlamentuak balio du

Nafarroako pertsona guztien ordezkari izateko.

Nafarroan bete behar diren

legeak onesteko* ere

balio du Parlamentuak.

Erakundea*:

Gizartearentzat garrantzitsua den
eginkizun bat
duen entitatea.

Legeak onestea*:

Legearekin ados
dagoen ala ez esatea.



Hau da Nafarroako Parlamentua

Nafarroako Parlamentua Iruñean dago Navas de Tolosa kaleko 1 zenbakian. Sarasate pasealekutik oso hurbil dago Foruen monumentuaren parean.



Hau da Foruen monumentua



Hau da Nafarroako Parlamentuaren ikurra

2. Nafarroako Parlamentuaren historia

Nafarroako Parlamentuaz hitz egiteko

Lehenbizi Nafarroako historiaz aritu behar dugu pixka bat.

Nafarroa **erresuma*** izan zen denbora luzez.

Erresuma zenean, XIII. mendean –13 irakurtzen da–,

Nafarroak bere Gorteak zituen, bere Parlamentua.

Erresuma*:

Errege batek
gobernatzen duen
lurraldea.

XIII. mendean Nafarroako gizartean

hiru talde handi zeuden:

- Eliza.
Taldea honetan zeuden adibidez gotzainak.
- Noblezia: boterea eta dirua zuten pertsonak.
Nobleziaren barruan daude nobleak, dukeak, kondesak eta abar.
- Unibertsitateak: herria, herritarrak.

Geroago, 1828tik 1829ra bitartean,

Gorteak desagertu ziren.

Nafarroako Foru Parlamentua 1979an sortu zen.


Parlamentu hau da lehenbiziko parlamentua

Nafarroako herritarrek aukeratzen dutena.

Bere historiaren lehen urteetan

Nafarroako 5 eskualdeetako 70 pertsonak

osatzen zuten Nafarroako Parlamentua.



Nafarroako 5 eskualdeak dira
Iruña, Lizarra, Tuteria, Zangoza eta Erriberri.

Nafarroako Parlamentuak eta **Gorte Nagusiek***
onetsi zuten Nafarroako Foru Eraentza
Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa (LORAFNA).

Gorte Nagusiak*:

Kongresua
eta Senatua

Lege hau Nafarroaren eta Espainiaren arteko akordio bat da.

Lege hau 1982an onetsi zen.

Lege hau da Nafarroako legerik garrantzitsuenak.



Hau Diputatuen Kongresua da.
Kongresua Madrilan dago.

3. Nafarroako erakundeak eta haien eginkizunak

LORAFNAREN arabera, Nafarroan 3 erakunde daude.

- ✍ Nafarroako Parlamentua
- ✍ Nafarroako Gobernua
- ✍ Nafarroako lehendakaria.



1go erakundea: Nafarroako Parlamentua

Nafarroako Parlamentuak honako eginkizun hauek ditu:

- ✍ Nafarroako Parlamentua da Nafarroako persona guztien ordezkaria. Nafar guztiak aukeratzen dute Nafarroako Parlamentua.
- ✍ Parlamentuak Gobernua kontrolatzen du eta laguntza ematen dio. Legeak egiten dituzten eta legeak betetzen direla egiaztatzen duten pertsonak osatzen dute Parlamentua.
- ✍ Parlamentuak onesten ditu Nafarroan bete beharreko legeak.
- ✍ Parlamentuak Nafarroako aurrekontuak onesten ditu. Aurrekontuak dira Nafarroak aurreikusten dituen diru-sarrerak eta gastuak honako hauetarako:
 - hezkuntza: ikastetxeak, institutuak
 - osasuna: adibidez ospitaleak
 - gizarte zerbitzuak: adibidez, desgaitasunen bat duten pertsonentzako laguntzak

Aurrekontuak urtean behin onesten dira.

✍️ Parlamentuak honako hauek aukeratzen ditu:

- Nafarroako Gobernuko lehendakaria.
- Senatari autonomikoa
Nafarroako pertsona guztien ordezkaria da
Eta Senatuan egiten du lan.



Hau Senatua da.

Senatua Madrilen dago.

- Kontuen Ganberako lehendakaria.
Kontuen Ganberaren eginkizuna da
zaintzea Nafarroaren dirua nola gastatzen den,
ongi edo gaizki gastatzen ote den.
- Nafarroako Arartekoa
Nafarroako herritarren eskubideak aldeztu ditu.



2garren erakundea: Nafarroako Gobernua

Nafarroako Gobernua

Nafarroako Foru Diputazioa ere deitzen da.

Gobernua da Nafarroako erakunde garrantzitsuenetako beste bat.

Hauak dira Nafarroako Gobernuaren eginkizun garrantzitsuenak:

- Nafarroako politika egiten du
hau da, Nafarroako herritarren bizimodua hobetzeko jarduerak eta proiektuak gauzatzen ditu.
Adibidez jarduerak egiten ditu besteak beste osasungintzak eta hezkuntzak ongi funtziona dezaten.
- Nafarroako Administrazioa zuzentzen du.
Hau da, funtzionarioen edo alor publikoan lan egiten duten pertsonen lana antolatu eta kontrolatzen du.
- Gobernuak betearazten ditu
Parlamentuak onetsi dituen legeak.

Gobernua osatzen duten pertsonak kontseilariak dira eta Gobernuko lehendakariak aukeratzen ditu.

3garren erakundea: Nafarroako Gobernuko lehendakaria

Gobernuak lehendakari bat du eta hori da Nafarroaren ordezkaria.

Lehendakaria Nafarroako Parlamentuak hautatzen du eta Espainiako Erregeak **izendatzen*** du.

Izendatu*:

Kargu bat ofizial egin

4. Parlamentuaren funtzionatzeko modua

Nafarroako Parlamentuan ondokoak aurki ditzakegu:

- ✍ Osoko Bilkura
- ✍ Lehendakaria
- ✍ Parlamentuko Mahaia
- ✍ Eledunen Batzarra
- ✍ Batzordeak

Osoko Bilkura



Osoko Bilkura da
Nafarroako Parlamentuaren organo nagusia.

Osoko Bilkura 50 lagunek osatzen dute.
Parlamentari izena dute
eta alderdi politiko desberdinetakoak dira.

Osoko Bilkura Nafarroako pertsona guztien ordezkaria da.
Osoko Bilkuran Nafarroako legeak eztabaidatu eta onesten dira.

Parlamentuko lehendakaria

Nafarroako Gobernuko lehendakariak eginkizun hauek ditu:

- Parlamentua ordezkatzeko du
- Osoko bilkuren funtzionamendua egokiaz arduratzen da.
- Hitz egiteko txanda ematen die parlamentariari osoko bilkuretan.

Parlamentuko Mahaia

Parlamentuko Mahaia eginkizun hauek ditu:

- Parlamentuaren funtzionamendua erabakitzen du.
- Osoko Bilkuraren bilkurak noiz egin erabakitzen du.
- Adibidez batzordeen bilkurak noiz egin erabakitzen du.

Parlamentuko Mahaia honako hauek osatzen dute:

- Parlamentuko lehendakaria.
- **Bi lehendakariorde***
- Bi idazkari:
botoak zenbatzen dituzten pertsonak dira.

Lehendakariordea*:

Lehendakaria
ordezkatzeko du
hura ez dagoenean



Hauek dira batzar gela eta mahaia

Eledunen Batzarra

Eledunen Batzarra osatuta dago
alderdi politiko desberdinetako pertsonekin.

Hauek dira Nafarroan dauden alderdi politikoak:

- Unión del Pueblo Navarro (UPN)
- Geroa Bai (GBAI)
- Euskal Herria Bildu Nafarroa (EH Bildu)
- Podemos – Ahal Dugu
- Partido Socialista de Navarra (PSN- PSOE)
- Partido Popular de Navarra (PPN)
- Izquierda Ezkerra (I-E)

Eledunen Batzarra osatzen duten pertsonak
eledunak izena dute.

Alderdi politikoen ordezkariak dira
eta haien kideen izenean mintzatzen dira.

Bozera maileen Batzordean

Parlamentuaren aurrekontuak eta kontuak onesten dira.

Batzordeak



Hau batzorde gela da

Batzordeak dira

15 parlamentarik egiten dituzten bilkurak.

Batzordeetan parte hartzen duten pertsonak alderdi politikoek izendatzen dituzte.

Nola egiten dute lan batzordeek?

1. Batzordeek sakontasun handiz aztertzen dituzte legeak eta beste gai garrantzitsu batzuk.
2. Aztertutako gaiei buruzko ondorioak ateratzen dituzte.
3. Ondorio horiek Osoko Bilkuran aurkezten dira.
4. Osoko Bilkurak erabakitzen du legea onetsi ala ez.

Batzorde bakoitzak alor desberdin bat aztertzen du.

Adibidez batzorde batek hezkuntzaren arloko gaiak aztertzen ditu, beste batek osasun arlokoak, beste batek nekazaritzakoak eta beste batzorde batzuek beste arlo batzuetakoak.

Batzorde hauetara ezin da edonor joan.

Batzorde hauetara joan daitezke

egunkari baterako, telebistarako edo irratirako lan egiten duten pertsonak.

Pertsona horiek parlamentuan gertatzen dena kontatzen dute.

Bada batzorde bat

Eskarietarako Batzordea izenekoa.

Batzorde horrek balio du

edonork Parlamentuari eskatu ahal izateko

gai zehatzen bat kontuan hartzeko.

Zure eskaria

Eskarietarako Batzordera iristea nahi baduzu

Legebiltzarreko Erregistro Orokorrera joan behar duzu.

Erregistro hori Parlamentuaren beheko solairuan dago.

Mezu bat ere bidali ahal duzu ondoko helbide elektronikora:

registro@parlamentodenavarra.es

5. Lege bat nola onesten den

Atal honetan azalduko dugu lege bat nola onesten den.

Lege bat onestea da

Parlamentuak esatea legearekin ados dagoen ala ez.

Lege bat onesteko jarraitu egin behar diren urratsak:

1. **Lege proiektu*** bat egin.

Lege-proiektua

udalek, herritarrek, Gobernuak edo parlamentariak presta dezakete.

Lege proiektua *:

Lege bat egiteko proposamena

2. Lege proiektua Parlamentura bidali.

Ondoren, **zuzenketak*** aurkez daitezke.

Zuzenketak*:

Aldaketak, zuzenkizunak.

3. Lege proiektua batzorde batean aztertu.

Batzordean irizpen bat prestatzen da.

Hori da Batzordeak legeari buruz duen iritzia.

Eztabaida egiten da eta ondorio batzuk ateratzen dira.

4. Ondorio horiek Parlamentuaren Osoko Bilkurara eramaten dira.

Orduan lege proiektua

onetsi edo ezetsi behar da.

5. Legea onesten bada,

argitaratu egiten da herritar guztiek ezagutu dezaten.

6. Nafarroako Parlamentuaren eraikinaren historia

Nafarroako Parlamentuaren egungo eraikina egiteko Julián Arteaga arkitektoak eginiko eraikin bat erabili zen.

Eraikinaren eraberritzean hormak eta fatxada mantendu ziren soilik. Eraikinaren barrua bota egin zen.

Hori dela eta, eraikinak estilo klasikoa du kanpotik eta modernoa barrutik.

Aspaldian epaitegiak zeuden eraikin honetan.

Eraikin hau Nafarroako Parlamentua da 2002az geroztik.

Nafarroako Parlamentuak 11.000 metro koadro baino gehixeago ditu. Nafarroako Parlamentuaren azalera Gayarre antzokiarenaren parekoa da.



Hau Gayarre antzokia da

Nafarroako Parlamentuaren barruan patio bat dago.
Patioak kristalezko baso erraldoi baten itxura du.
Patio hau oso irudi garrantzitsua da Parlamentuan.



Hau da Nafarroako Parlamentuko patioa.

7. Parlamentuaren eraikinaren antolamendua

Nafarroako Parlamentuak 4 solairu ditu.

Garaje bat ere badu.

Behe-solairua

Behe-solairuan Osoko Bilkuren aretoko sarrera dago.



Osoko Bilkuren aretoa da
legeen eta politikaren inguruko erabakiak
hartzen diren tokia.

Behe-solairuan atalondoa ere badago.



Atalondoa gunee ireki bat da
eta bertan erakusketak jartzen dira.
Edonor joan daiteke erakusketa horiek ikustera.
Halaber, behe-solairuan harrera-gela ere aurkituko dugu.

Solairuarte

Eraikineko solairuarteetan aurki ditzakegu
Parlamentura joaten diren pertsonen
erabil ditzaketen zerbitzu desberdinak.
Zerbitzu horietako batzuk honako hauek dira:

- Erabilera anitzeko gela, hitzaldi, prentsaurreko eta halakoetarako.
- Erregistro orokorra.

Lehen solairua

Lehen solairuan Lehendakaritza dago.
Hemen dauka bulegoa Parlamentuko lehendakariak.
Solairu honetan Batzar-gela ere aurkituko dugu.

Bigarren solairua

Bigarren solairuan talde parlamentarioak edo alderdi politikoak daude
bai eta batzorde gelak ere.

8. Parlamentuak eskaintzen dituen zerbitzuak eta informazioa

Nafarroako Parlamentuak eskaintzen dituen zerbitzuak ondokoak dira:

- Bisita gidatuak Nafarroako Parlamentura
- Jardunaldi irekiak Nafarroako Parlamentuan
- Nafarroako Parlamentuari buruzko informazio materiala

· Bisita gidatuak Nafarroako Parlamentura

Nafarroako Parlamentuan bisita gidatuak egin daitezke.

Bisita gidatu batean toki bat ikusten da pertsona batek lagunduta.

Pertsona horrek tokiari buruzko azalpenak emanen dizkigu.

Bisita gidatuak pertsona taldeentzat dira.

Talde horiek ikastetxeetakoak edo elkarteak izan daitezke.

Gaztelaniaz hitz egiten ez dutenek azalpenak euskaraz edo beren hizkuntzan entzun ditzakete.



Nafarroako Parlamentuko bisita gidatuak astearte eta asteazkenetan dira goizeko 11:00etatik 13:00etara.



Bisita gidatu batean parte hartzeko hitzordua eskatu behar da.

Horretarako telefonoz deitu behar da
Protokolo Zerbitzura.
Deitu telefono honetara: 948 20 92 66.



Mezu elektronikoa ere bidali dezakezu
helbide honetara: protocolo@parlamentodenavarra.es

- Jardunaldi irekiak Nafarroako Parlamentuan

Jardunaldi irekiak
abenduaren hasieran antolatzen dira.

Jardunaldi horietan edonor joan daiteke Parlamentura.
Eraikina barrutik ikusi
eta Parlamentua hobeto ezagutu dezakezu.



Jardunaldi irekietarako hitzordua hartzeko
948-209209 telefonora deitu behar da.

- Nafarroako Parlamentuari buruzko informazio materiala

Parlamentuaren eraikinean bada material idatzia
informazioa ematen duena
Nafarroako Parlamentuarekin zerikusia duen orori buruz.

Material hori doakoa da, ez da ezer ordaindu behar.
Material hori Parlamentuan eskura daiteke.



Helbide honetara idatzita ere eska daiteke:
protocolo@parlamentodenavarra.es

9. Zalantzaren bat duzu?

Jarri harremanetan Nafarroako Parlamentuarekin

Nafarroako Parlamentuarekin harremanetan jartzeko modu desberdinak daude:

- Parlamentura joanda
Navas de Tolosa kaleko 1 zenbakian.



- Telefonoz deituta 948-209209 zenbakira.



- Parlamentuko webgunea begira dezakezu
www.parlamentodenavarra.es



- Parlamentuaren facebook-a begira dezakezu
Facebook: parlamentoNA



- Parlamentuaren twitter-a begira dezakezu
@parlamentoNA



- Parlamentuak YouTube-n duen kanala begira dezakezu
YouTube: Parlamento de Navarra – Nafarroako Parlamentua

Irakurketa Erraza formatuko dokumentu honen gaztelaniazko bertsioa ANFASen irisgarritasun kognitiboko zerbitzuak egokitu eta balioetsi du.



Laguntzailea: Parlamento de Navarra/Nafarroako Parlamentua



Dokumentu honetan erabilitako ikur piktografikoetako batzuk Aragoiko Gobernuaren jabetzakoak dira eta Sergio Palaok sortu ditu ARASAAC-entzat (<http://arasaac.org>), zeinak Creative Commons (BY-NC-SA) lizentzian banatzen baititu.



"© European Easy-to-Read Logo: Inclusion Europe.

Informazio gehiago: www.inclusion-europe.org/etr"